Erabaki honen aurka eta tramitezko akto bat denez, ezingo da inolako errekurtsorik tartejarri, hau, Herri-Administrazioen Erregimen Juridikoaren eta Guztientzako Administrazio-Ihardunbideari buruz azaroaren 26ko 30/92 Legearen 107 artikuluaren arabera».

Oiartzun, 2007ko maiatzaren 28a.—Alkatea.

(2465) (6447)

---

*Iragarkia*

Oiartzungo Udal osoak Batzarrak, 2007ko martxoaren 29an buruturiko saioan, hasierako onarpena eman zion «Oiartzungo Udal Etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantzari».

Ordenantza hori 30 eguneko epean jendaurrean jarri zen, 2007ko apirilaren 16ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdun aldetik inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatu ordenantza behin betiko onartutzat ematen da.

Beraz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legea, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izando da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aldez aurreko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izando da, hilabeteko apean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoa erabaki arte.

Hori guztia irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe

Oiartzun, 2007ko maiatzaren 28a.—Alkatea.

(2470) (6448)

*Primero:* Incoar procedimiento sancionador a D. Pedro Aranguren San Nicolas a fin de determinar la responsabilidad en que haya podido incurrir por dar uso de vivienda al desván situado en Etxebeste-Etxadia n.º 3, constituyendo una presunta infracción tipificada y sancionada por el artículo 225 y siguientes de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio.

*Segundo:* Nombrar a D.ª M.ª Victoria Joaristi Olariaga Instructor del expediente que ahora se inicia.

En cualquier momento de la tramitación del expediente podrá promoverse la recusación del Instructor designado, por los motivos previstos en el artículo 28 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo, mediante escrito en el que se expresa la causa o causas en que se funde la recusación.

*Tercero:* Poner el expediente de manifiesto a los interesados en el procedimiento y a sus representantes en la Sección de Obras de este Ayuntamiento en horario de oficinas, y, sin perjuicio del principio de acceso permanente establecido en el artículo 3 del Real Decreto 1.398/1993 y 24 de la Ley 2/1998, concediéndoles un plazo de 15 días para que puedan aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones que estimen convenientes y, en su caso, proponer prueba concretando los medios de que pretendan valerse.

Contra la presente Resolución no cabe interponer recurso alguno por tratarse de un acto de trámite, de conformidad con el artículo 107 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común».

Oiartzun, a 28 de mayo de 2007.—El Alcalde.

(2465) (6447)

---

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Oiartzun, en sesión de fecha 29 de marzo de 2007, aprobó inicialmente la «Ordenanza Municipal reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Oiartzun».

Dicha Ordenanza quedó sometida a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 16 de abril de 2007, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá inteponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime procedente.

Oiartzun, a 28 de mayo de 2007.—El Alcalde.

(2470) (6448)

*Oiartzungo Udal Etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantza.*

Oiartzungo Udalak jarrera aktiboa izan behar du biztanleentzako etxebizitza egokien beharrari eta arrazoizko prezioen beharrari erantzuteko garaian. Izan ere, etxebizitza da herriko gizarte arazo garrantzitsuenetako bat.

Etxebizitzen arazoa, funtsean, prezioa da. Azken urteotan etxebizitza libreen prezioak etengabe egin du gora, eta, ondorioz, premiazko neurriak hartu behar dira, egoera interes orokorrerako larria izan baino lehen.

Hainbat neurri hartu behar da, hala nola planeamenduan babes ofizialeko etxebizitzak gordetzea, etxebizitza horietako hainbaten sustapen publikoa egitea, etxebizitza hutsak erabiltzea, alokairuan diren babes ofizialeko etxebizitzen parkea sortzea, eta gazteentzako eta adindunentzako etxebizitzak egotea.

Baina, horrez gain, sustapen libreko etxebizitzen prezioak gora egiteak eragina du bazterkeria bikoitzean egoteko gero eta arrisku handiagoa duten gizarte sektoreengan: Ez dute etxebizitza librea erosteko behar adina dirurik, eta, era berean, ez dute babes ofizialeko etxebizitza izateko aukerarik, erkidegoko arautegian ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak gainditzen dituztelako. Horregatik, beharrezkotzat jo da babes publikoko etxebizitza mota berria sortzea, babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarrita dauden diru sarrerak baino pixka bat altuagoak dituzten pertsonentzako. Bestalde, babes ofizialeko etxebizitza eskuratu ahal izateko baldintza ekonomiko altuenak betetzen dituen hainbat pertsonak interesa izan dezake etxebizitza babestu erosteko, garestixeagoa baita, baina nolanahi ere merkatu libreko etxebizitzak baino askoz merkeago.

Oiartzungo Udalak etxebizitza tasatuak planteatu ditu Arraguako hiri antolamenduan, babes publikoko etxebizitzen erregimen espezifiko gisa.

Udala jabetzen zen, baina, figura berri hori erabat eraginkorra izan zedin, legez arautu behar zela.

Berriki onartu den Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrian (2006ko ekainaren 30ekoa), besteak beste, Oiartzungo esperientzia hori dago jasota. Hain zuzen, figura hori azaltzen eta arautzen du, orain ezar dadin ahalbidetzen duen oinarrizko erregimen juridikoari dagokionez.

Gainera, udalak etxebizitza gaietan duen eskumena eta autonomia onartzen da, ez soilik sustapenari dagokionez, bai eta tokian arautzeari dagokionez ere. Hain zuzen ere, lege berriak udalei ahalmena eman die Udal ordenantzen bitartez udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa gara dezaten.

Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Lege berrian (2006ko ekainaren 30ekoa) honako hau dago jasota, Zortzigarren Xedapen Gehigarrian:

4. Lege honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira udal etxebizitza tasatutzat (UET): Euskal Herriko udalek ezartzen dituztenak, dagokion udal ordenantzaren bidez erabakita eta ordenantza horretan beren babes publikoko araubidea erregulatuta.

5. Udalaren etxebizitza tasatua ezartzeko eta erregulatzeko udal-ordenantzak gauza hauek zehaztuko ditu:

a) Etxebizitzaren eta erantsien ezaugarriak.

*Ordenanza Municipal reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Oiartzun.*

El Ayuntamiento de Oiartzun debe adoptar una posición activa a la hora de tratar de dar respuesta a las necesidades de vivienda adecuada y a precios asequibles a su población, ya que la vivienda constituye uno de los problemas sociales más relevantes del municipio.

El problema de la vivienda es fundamentalmente un problema de precio. El progresivo incremento del precio de la vivienda libre a lo largo de los últimos años exige medidas urgentes ante una situación que puede llegar a ser dramática para el interés general.

Las reservas de vivienda de protección oficial en el planeamiento, la promoción pública de buena parte de dichas viviendas, la activación de la vivienda vacía, la creación de un parque público de VPO de alquiler, los apartamentos para jóvenes y para mayores, son todas ellas medidas necesarias.

Pero es que, además, el incremento del precio de la vivienda de promoción libre produce el efecto para sectores sociales de importancia creciente del riesgo de la doble exclusión: No disponen de los ingresos suficientes para adquirir viviendas libres y a su vez no pueden optar a la vivienda de protección oficial por superar los ingresos máximos establecidos por la normativa autonómica. Se ha visto necesario, por ello, desarrollar una tipología específica de vivienda de protección pública para ciudadanos con ingresos algo superiores a los establecidos para la vivienda de protección oficial. Por otro lado, ciudadanos que reúnen las condiciones económicas en su tramo más alto para optar a la vivienda de protección oficial pueden estar también interesados en optar a un tipo de vivienda protegida de precio algo superior pero en todo caso muy inferior al del mercado libre.

La Vivienda Tasada, como un régimen específico de vivienda de protección pública, se ha ido planteando por el Ayuntamiento de Oiartzun en la ordenación urbanística de Arragua.

Se era consciente, sin embargo, de que para que esta novedosa figura desplegara su completa eficacia se necesitaba una regulación legislativa de la misma.

La recientemente aprobada Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, basándose, entre otras, en la citada experiencia de Oiartzun, ha recogido esta figura y la ha dotado de una regulación en cuanto a su régimen jurídico básico que permite ahora aplicarla.

Reconociendo, además, la competencia y autonomía municipal también en materia de vivienda, no sólo en cuanto a su promoción sino también en cuanto a su regulación local, la nueva Ley ha facultado a los ayuntamientos a desarrollar mediante Ordenanza Municipal el régimen jurídico de las Viviendas Tasadas Municipales.

El concreto, la nueva Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco dispone lo siguiente en su Disposicion Adicional Octava:

4. A los efectos de esta ley, tendrán la consideración de viviendas tasadas municipales (VTM) las que los ayuntamientos del País Vasco decidan establecer mediante la promulgación de la correspondiente ordenanza local que regule su régimen de protección pública.

5. La ordenanza local que establezca y regule la vivienda tasada municipal de un municipio determinará:

a) Las características de la citada vivienda y sus anexos.

b) Ezartzen diren udal babeseko araubideak eta, hala badagokio, araubide hitzartuko eta araubide bereziko modalitateak. Araubide berezikoak, inola ere, araubide tasatuko babes ofizialeko etxebizitzak ordezkatu ahal izango ditu, 80. artikuluan xedatzen den bezala.

c) Etxebizitzon eskuratzaileak, eta etxebizitzok esleitzeko prozedura. Horri dagokionez, publikotasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak bete beharko dira nahitaez.

Salbuespen gisa, sustapen bakoitzetik etxebizitza-kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, tokiko administrazioek beharrizan sozialei alokairu tutelatuen bidez edo prekarioan lagata erantzuna eman diezaien. Horrez gainera, beste bizileku bat emateko espedienteetarako ere bereizi ahal izango dira, goragoko taldetik kanpo baitaude.

6. Etxebizitza tasatuak eta araubide bereziko udal etxebizitza tasatuak saltzeari dagokionez, baldin eta 80. artikuluan finkatutako gutxieneko estandarrak betetzeko kontatzen badute, gehienezko prezioak ezin izango du gainditu araubide hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzen gehienezko prezioa bider 1,70 indizea. Legez edo erregulamenduz aldatu arte, etxebizitza horien onuradunen gehienezko diru-sarrerak ezin izango dute gainditu araubide hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean duden gehienezko diru-sarrerak bider 1,30 indizea. Nolanahi ere, udalak bestelako parametro batzuk ezarri ahal izango ditu araubide hitzartuko udal etxebizitza tasatuetarako.

Halaber, lege berrian honako hau ere badago jasota (16. artikulua): «Udalaren hirigintza plangintzaren bidez, etxebizitzak babes publikoko araubide bati atxikita eraikitzeko kalifikatu ahal izango dira lursailak. Betiere, ordea, legearen 80. artikuluan aurreikusita dauden gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzeko behar den lurzoru kalifikazioa egin beharko da gutxienez».

16. artikuluko 1. atalaren amaieran, honako hau dago jasota: «Kalifikazio egintzan, lurzoru horretarako izendatutako babes mota zehaztu beharko du hirigintza antolamenduak».

Azkenik, nabarmentzekoa da lege horren xedapen gehigarrian honako hau dagoela jasota: «Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzek etxebizitza babestuaren kalifikazio iraunkorra edukiko dute» eta, «ondorioz, eskualdaketarako gehienezko prezioa ezarriko zaie bere erregulazio arauan eta haiek lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea edukiko du, lehenik, administrazio jarduleak eta, betiere, modu subsidiarioan Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak».

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruei eta Hirigintzari buruzko Lege horrek eskumena ematen diolarik, Oiartzungo Udalak honako hau onartu du:

*Oiartzungo udal etxebizitza tasatua arautzeko udal ordenantza.*

*1. artikulua. Xedea.*

Udal ordenantza honen xedea Oiartzungo udal etxebizitza tasatuen babes publikoko erregimena ezartzea da.

Oiartzungo udal etxebizitza tasatuen babes publikoaren erregimena ezartzen da figura horretarako 2/2006 Legean (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, 2006ko ekainaren 30ekoa) jasota dagoena garatzeko.

b) Los regímenes de protección municipal que establezcan y, en su caso, las modalidades del régimen concertado y del régimen especial, siendo éste el de las viviendas que podrán sustituir a las viviendas de protección oficial de régimen tasado según se establece en el artículo 80.

c) Los destinatarios y el procedimiento para su adjudicación, en el que deberán respetarse necesariamente los principios de publicidad, libre concurrencia y no discriminación.

Excepcionalmente podrá acordarse la exclusión de un cupo de viviendas de cada promoción para atender por parte de las administraciones locales necesidades sociales a través del alquiler tutelado o cesión en precario, todo ello sin perjuicio de los expedientes de realojo, que estarán excluidos del citado cupo.

6. El precio máximo de venta de las viviendas de protección oficial de régimen tasado y de las viviendas tasadas municipales de régimen especial que computen en el cumplimiento de los estándares establecidos como mínimos en el artículo 80 no podrá superar 1,70 veces el precio máximo de las viviendas de protección oficial de régimen concertado. Hasta que no se modifique por disposición reglamentaria, los ingresos máximos de los beneficiarios de estas viviendas no podrán ser superiores al índice de 1,3 respecto los ingresos máximos vigentes para acceder a las viviendas de protección oficial de régimen concertado. Todo ello se establece sin perjuicio de la libertad para el establecimiento por parte del ayuntamiento de otros parámetros distintos para las viviendas tasadas municipales de régimen concertado.

La Ley (art. 16) dispone, además, que «el planeamiento urbanístico municipal podrá calificar cuantos terrenos considere precisos para la construcción de viviendas sujetas a algún régimen de protección pública, que como mínimo atenderá la obligación de calificación de suelo para el cumplimiento de los estándares y cuantías mínimas previstas en el artículo 80».

El artículo 16 termina su apartado 1 estableciendo que «la ordenación urbanística deberá especificar en el acto de calificación el tipo de protección para el que el mismo se destina».

Es de señalar, por último, que la Ley, en la citada Disposición Adicional, dispone que «las viviendas acogidas a cualquier régimen de protección pública –por ello, tanto las VPO como las VTM– tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas» y que, «consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto a un precio máximo de transmisión, establecido por su norma reguladora, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor en primer lugar de la administración actuante, y, en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración general de la Comunidad Autónoma».

Habilitado, pues, por la citada Ley de Suelo y Urbanismo del País Vasco, este Ayuntamiento de Oiartzun aprueba la siguiente:

*Ordenanza Municipal reguladora de la Vivienda Tasada Municipal de Oiartzun.*

*Artículo 1. Objeto.*

La presente Ordenanza municipal tiene por objeto establecer el régimen de protección pública de la Vivienda Tasada Municipal (VTM) del municipio de Oiartzun.

El régimen de protección pública de la Vivienda Tasada Municipal (VTM) del municipio de Oiartzun se establece en desarrollo de lo establecido para esta figura en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

*2. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren kontzeptua.*

Oiartzungo udalerrian, udal etxebizitza tasatutzat hartuko dira, saltzeko edo alokatzeko prezioa mugatuta dutenez eta ordenantza hauetan ezarritako gainerako betekizunak betetzen dituztenez, Udalbatzak halakotzat jotzen dituen etxebizitzak.

Udal etxebizitza tasatuen izaera etxebizitza bakoitzari atxikitako garajeetara eta trastelekuetara ere hedatzen da.

Udal etxebizitza tasatuek titularren edo maizterren ohiko etxebizitza iraunkorra izan behar dute, eta inolaz ere ezin zaie beste pertsona batzuei laga, eta ezin dira hutsik utzi edota bigarren etxebizitza gisa edota bizitegitarako ez diren bestelako erabileretarako erabili.

Udal etxebizitza tasatuak hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikatutako lurretan nahiz prezio mugarik ez duten bizitegietarako lurzoruetan susta daitezke.

*3. artikulua. Motak.*

Oiartzungo udal etxebizitza tasatuak bi eratakoak izango dira:

— Erregimen hitzartuko udal etxebizitza tasatuak.

— Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuak.

Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek babes ofizialeko etxebizitza tasatuak ordez ditzakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean (2006ko ekainaren 30ekoa) jasota dauden gutxieneko estandarrak betetze aldera.

*4. artikulua. Oiartzungo udal etxebizitza tasatuen baldintza orokorrak.*

Oiatzungo udal etxebizitza tasatuek ezin izango dute 90 m² (s) baino gehiagoko azalera erabilgarria izan; salbuespena izango dira, bereziki familia ugarientzat direnak izanik, 120 m² (s) edo gutxiagoko azalera dutenak. Sustapen bakoitzean, halako etxebizitzak etxebizitza guztien %3 izango dira gutxienez, eta %10 gehienez. Udal sustapeneko udal etxebizitza tasatuek ezin dute 85 m² (s) erabilgarri baino gehiago izan.

Udal etxebizitza tasatu guztiek aparkaleku plaza eta trastelekua izango dute atxikita. Bi horien azalerak ezingo ditu izan, hurrenez hurren, 30 m² (s) eta 10 m² (s) erabilgarri baino gehiago. Etxebizitzari atxikiak direla jaso beharko da Jabetza Erregistroan.

Udal etxebizitza tasatuek, garaje eta trastelekuekin batera, autonomia erkidegoko Administrazioak babes ofizialeko etxebizitza tasatuetarako ezarritako baldintza teknikoak zein diseinuko baldintzak bete beharko dituzte, eta, baldintza horiek ezartzen ez diren bitartean, erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzei eskatzen zaizkienak bete beharko dituzte.

*5. artikulua. Erregimen hitzartuko udal etxebizitza tasatuen baldintza zehatzak.*

Udal etxebizitza tasatu guztietarako izaera hitzartuarekin ezarrita dauden baldintzez gain, erregimen hitzartuko udal etxebizitza tasatuek promozio bakoitzak ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Kontutan hartu beharra dago, etxebizitza tasatu hauek estandarretik at daudela eta beraz, ez dute prezio limiterik ez eta betiko kalifikaziorik, etxebizitza libreak kentzen dute.

*6. artikulua. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen baldintza zehatzak.*

Udal etxebizitza tasatuetarako oro har ezarrita dauden baldintzez gain, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

*Artículo 2. Concepto de vivienda tasada municipal.*

En el municipio de Oiartzun tendrán la consideración de Viviendas Tasadas Municipales (VTM) las viviendas que, por tener limitado su precio de venta o alquiler y cumplir con los demás requisitos establecidos en esta Ordenanza, sean calificadas así por el Ayuntamiento.

El carácter de Vivienda Tasada Municipal (VTM) se extiende a los garajes y trasteros vinculados a cada vivienda.

Las VTM deberán constituir el domicilio habitual y permanente de sus titulares o inquilinos, sin que bajo ningún concepto puedan cederse a otras personas, mantenerse vacías o destinarse a segunda residencia o cualquier otro uso no residencial.

Las VTM podrán promoverse tanto en suelos expresamente calificados por el planeamiento urbanístico para este uso como en suelos residenciales no sometidos a limitación de precio.

*Artículo 3. Clases.*

Las Viviendas Tasadas Municipales de Oiartzun podrán ser de dos clases:

— Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Concertado (VTMC).

— Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME).

Las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial (VTME) podrán sustituir a las Viviendas de Protección Oficial Tasadas a efectos de cumplimiento de los estándares mínimos establecidos en la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

*Artículo 4. Requisitos generales de la Vivienda Tasada Municipal de Oiartzun.*

Las Viviendas Tasadas Municipales de Oiartzun no podrán disponer de más de 90 m²(t) útiles de superficie, salvo que se trate de las específicamente destinadas a familias numerosas, que no podrán exceder de 120 m²(t) útiles y de las que sólo podrán destinarse en cada promoción hasta un máximo del 5 por 100 del número total. Las VTM de promoción municipal no podrán disponer de más de 85 m²(t) útiles.

Todas las VTM tendrán una plaza de aparcamiento y un trastero vinculados, que no podrán tener una superficie superior respectivamente a los 30 m²(t) y los 10 m²(t) útiles y cuyo carácter vinculado se deberá inscribir en el Registro de la Propiedad.

Las VTM, con sus garajes y trasteros, deberán cumplir los requisitos técnicos y de diseño que se establezcan para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas (VPOT) de la Administración autonómica y, mientras éstos no se establezcan, los exigibles a las VPO de Régimen Concertado.

*Artículo 5. Requisitos específicos de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Concertado.*

Además de los requisitos establecidos con carácter general para la totalidad de las VTM, los requisitos para las VTM de Régimen Concertado (VTMC) dependerán de cada una de las operaciones que se establezcan. Hay que tener en cuenta, estas viviendas tasadas están por encima del estándar, por lo tanto no tienen precio límite ni tampoco tienen por qué tener calificación permanente ya que restan de las viviendas libres.

*Artículo 6. Requisitos específicos de las Viviendas Tasadas Municipales de Régimen Especial.*

Además de los requisitos establecidos para el conjunto de las VTM, las VTM de Régimen Especial (VTME) deberán cumplir los siguientes:

1. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen (garaje eta trasteleku atxikiak barne) gehieneko salmenta prezioa, babes ofizialeko etxebizitza tasatuei autonomia erkidegoan aplikagarri zaien arauek ezarriko dute. Nolanahi ere, ezingo dute gainditu 1,7 indizea, udal kalifikazioa eskuratzen den unean, indarrean den erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioari dagokionez.

2. Alokairuaz den bezainbatean, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen urteko errenta, etxebizitza horien gehieneko salmenta prezioaren %2,5 izango da gehienez.

3. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gehieneko diru sarrera haztatuak, Euskal Autonomia Erkidegoko arautegian jasotakoarekin bat kalkulaturik, ezin dira 1,3 indizea baino handiagoak izan, erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean diren gehieneko diru sarrerei dagokienez.

4. Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen onuradunen gutxieneko diru sarrera haztatuak ezin dira izan gizarte etxebizitzak (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) eskuratzeko ezarrita dauden gehieneko diru sarrerak baino txikiagoak.

*7. artikulua. Udal etxebizitza tasatuak sustatzeko eta lagatzeko erak.*

Oiartzungo udal etxebizitza tasatuak, edozein motatakoak izanik ere, Udalak berak susta ditzake edota Udalak bere titulartasuneko lursailen azalera eskubidea –eraikitze aldera– lagatzen dien enpresa publiko edo pribatuek, beste administrazio publiko batzuek nahiz haien tresna erakundeek, eta kooperatibek edo enpresa pribatuek.

Udalak sustatutako edota udalak azalera eskubidea –eraikitze aldera– lagatzen dien enpresa publiko edo pribatuek sustatutako udal etxebizitza tasatuen lagapena alokairuan edo lurrazaleko jabetzan egingo da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, beste Administrazio batzuek edo haien tresna erakundeek eta kooperatibek edo enpresa pribatuek beren titulartasuneko lurretan sustatutako udal etxebizitza tasatuak jabetza osoan laga daitezke, lurzoruaren hirigintza kalifikazioak edo Udalarekin egindako hitzarmen batek beste zerbait ezarri ezean.

*8. artikulua. Udal etxebizitza tasatuen onuradunentzako etxebizitza beharraren baldintza.*

Udal etxebizitza tasatuaren onuradun guztiek (onuraduntzat, bizikidetza unitateko kide guztiak hartuta) bete beharko dute beste etxebizitzarik ez izatearen baldintza, eta ezingo dute etxebizitzarik izan ez jabetzan (jabetza osoa edo lurrazalekoa), ez bizi arteko gozamen eskubide errealaren bidez. Hori guztia beteko da etxebizitzaren beharra definitzen duen autonomia erkidegoko arautegian zehaztuta dauden salbuespenak aintzat hartuta edota lehendik duten etxebizitzak betetzen ez dituenean Oiartzungo Eraikuntzako Udal Ordenantzako gutxieneko etxebizitza programan jasota dauden baldintzak.

*9. artikulua. Herrian bizitzeko baldintzak.*

Gainera, udal etxebizitza tasatuaren onuraduna izan ahal izateko, bizikidetza unitateko kideetako batek, gutxienez, honako baldintza hauetako bat bete behar du gutxienez:

— Azken 10 urteetan, gutxienez 5 urtez Oiartzunen erroldatuta egotea eta Oiartzun ohiko bizitokia izatea.

Alokairuko udal etxebizitza tasatuen kasuan, baldintza izango da Oiartzunen erroldatuta egotea eta Oiartzun ohiko bizitokia izatea urtebete baino gehiagoz eskaera egin aurreaurreko aldian.

1.º El precio máximo de venta de las VTME, incluidos sus garajes y trasteros vinculados, será el establecido por la normativa autonómica de aplicación para las VPOT. En todo caso, no podrán superar el índice 1,7 respecto al precio máximo de las VPO. de Régimen Concertado vigente en el momento de obtención de la Calificación municipal.

2.º En caso de alquiler, la renta anual de las VTME será como máximo el 2,5% del precio máximo de venta de las mismas.

3.º Los ingresos máximos ponderados de los beneficiarios de las VTME, calculados conforme a lo dispuesto en la normativa autonómica vasca, no podrán ser superiores al índice 1,3 respecto de los ingresos máximos vigentes para acceder a las VPO de Régimen Concertado.

4.º Los ingresos mínimos ponderados para los beneficiarios de las VTME no podrán ser inferiores a los ingresos máximos establecidos para acceder a las viviendas sociales (VPO de Régimen Especial).

*Artículo 7. Formas de promoción y cesión de la Vivienda Tasada Municipal.*

Las VTM de Oiartzun, cualquiera que sea su clase, podrán ser promovidas por el Ayuntamiento, o por empresas públicas o privadas a las que el Ayuntamiento ceda el derecho de superficie para su construcción, por otras Administraciones públicas o sus entes instrumentales y por cooperativas o empresas privadas en terrenos de su titularidad.

La cesión de las VTM promovidas por el Ayuntamiento, a través de Etxebide o por empresas públicas o privadas a las que el Ayuntamiento ceda el derecho de superficie para su construcción, se realizará en arrendamiento o propiedad superficiaria. Las VTM promovidas por la Administración de la Comunidad Autónoma Vasca u otras Administraciones o sus entes instrumentales y por cooperativas o empresas privadas en terrenos de su titularidad podrán ser cedidas en plena propiedad, salvo que por imperativo de la calificación urbanística del suelo o por convenio con el Ayuntamiento se hubiera establecido otra cosa.

*Artículo 8. Requisito de necesidad de vivienda de los beneficiarios de la Vivienda Tasada Municipal.*

Todos los beneficiarios de VTM, entendiendo por tales la totalidad de los miembros de la unidad convivencial, deberán cumplir el requisito de no disponer de otra vivienda, bien en propiedad, plena o superficiaria, bien por derecho real de disfrute vitalicio, y ello en los términos y con las salvedades establecidas en la normativa autonómica que define la necesidad de vivienda o salvo cuando la vivienda de la que dispongan no alcance las condiciones del programa mínimo de vivienda de la Ordenanza municipal de Edificación.

*Artículo 9. Requisitos de residencia.*

Para ser beneficiario de una VTM se requerirá, además, que alguno, al menos, de los componentes de la unidad convivencial cumpla con uno, al menos, de los siguientes requisitos:

— Residencia habitual y empadronamiento en Oiartzun durante un mínimo de 5 años en los últimos 10.

En el supuesto de VTM de alquiler, el requisito de residencia habitual y empadronamiento en Oiartzun será de más de un año en el período inmediatamente anterior a la solicitud.

*10. artikulua. Kalifikazioa.*

Bai erregimen hitzartuko udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioa, bai erregimen bereziko kalifikazioa Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenaren bidez ezarriko dira, sustatzaileak eskatuta.

Hirigintza plangintzan berariaz erabilera horretarako kalifikaturiko lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzen behin-behineko kalifikazioarekin batera, eraikitzeko baimena eskuratu behar da, eta ez da baimen hori emango ez baldin bada eskatzen edota kalifikazioa ez bada egokitzat jotzen.

Behin-behineko kalifikazioaren dokumentuan etxebizitza bakoitzaren gehieneko salmenta prezioa zehaztuko da, garaje eta trasteleku atxikiak aintzat hartuta.

Lehen erabilerako hirigintza lizentzia eskuratzeko beharrezkoa izango da, aldez aurretik edo aldi berean eta sustatzaileak hala eskatuta, erregimen hitzartuko edo erregimen bereziko udal etxebizitza tasatu direla adierazten duen behin betiko kalifikazioa eskuratzea. Horrez gain, egiaztatu egin beharko da etxebizitza behin-behineko kalifikazioan zehaztutakoaren arabera egin dela.

Hirigintza plangintzak berariaz erabilera horretarako kalifikatu ez dituen lurzoruetan sustatzen diren etxebizitzak udal etxebizitza tasatutzat jo ahal izango dira edozein unetan, eta kalifikazioa lortutakoan, udal etxebizitza tasatuen erregimen juridikoa aplikatu ahal izango zaie. Kasu horretan, kalifikazioa lortzeko ez da oztopo izango autonomia erkidegoko Administrazioak babes ofizialeko etxebizitza tasatuetarako ezarritako baldintza teknikoak eta diseinuko baldintzak ez betetzea, edo, halakorik ezean, erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritakoak.

*11. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren kalifikazioaren ondorioak.*

Legeak xedatutakoaren arabera, udal etxebizitza tasatu gisa kalifikatutakoak, garaje eta trasteleku atxikiak barne, etxebizitza babestutzat kalifikatuko dira behin betiko. Ondorioz, behin betiko egongo dira lotuta eskualdatzeko gehieneko prezioari (ordenantza honetan zehazten da), eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideeri (lehenik eta behin, Udalaren edo administrazio jardulearen alde, eta, nolanahi ere, Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren alde, subsidiarioki).

Bizien artean bigarrenez edo aldi gehiagotan eskualdatutako udal etxebizitza tasatuen gehieneko prezioa izango da hurrengo irizpide hauek ezarritakoan kalkulatutakoa:

Erregimen hitzartuko udal etxebizitza tasatuen kasuan: Promozio bakoitzeko baldintzen araberakoa.

Erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuek ezingo dute gainditu babes ofizialeko etxebizitza tasatuetarako autonomia erkidegoaren araudian ezarritakoa. Nolanahi ere, ezingo dute gainditu 1,7 indizea, eskualdatzeko unean indarrean den erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzen gehieneko prezioari dagokionez.

Etxebizitzak lurrazaleko jabetzaren erregimenean lagatzen baldin badira, bigarren eskualdatzeetan nahiz geroagokoetan, prezioa hau izango da, gehienez, hasierako erosketan ordaindutakoa, kontsumo prezioen indizearen aldaketak aplikatuz eguneratuta, eta honako kopuru hauek kenduta:

— Urteko %0,5 lehen 30 urteetan.

— Urteko %1 hurrengo 20 urteetan.

— Urteko %2,6 azken urteetan.

*Artículo 10. Calificación.*

Tanto la Calificación de Vivienda Tasada Municipal de Régimen Concertado como la de Régimen Especial se establecerá mediante resolución de la Junta de Gobierno Local a petición del promotor.

La Calificación Provisional de las viviendas que se promuevan en suelos calificados expresamente por el planeamiento urbanístico para este uso habrá de simultanearse con la licencia de edificación, que no se otorgará de no solicitarse o no resultar procedente la Calificación.

En el documento de Calificación Provisional se fijará el precio máximo de venta de cada vivienda con el de su garaje y trastero vinculados.

Para la obtención de la licencia urbanística de primera utilización será requisito necesario la obtención previa o simultánea, a solicitud del promotor, de la Calificación Definitiva como VTM de Régimen Concertado o de Régimen Especial, debiendo acreditarse que la vivienda se ha realizado según las determinaciones de la Calificación Provisional.

Las viviendas que se promuevan en suelos no calificados expresamente por el planeamiento urbanístico para este uso podrán calificarse como V.T.M. en cualquier momento, pasando, tras la obtención de la Calificación, a serles aplicable el régimen jurídico de las mismas. En este caso no será obstáculo para la calificación el no cumplimiento de los requisitos técnicos y de diseño establecidos para las Viviendas de Protección Oficial Tasadas (VPOT) de la Administración autonómica y, en su defecto, los exigibles a las VPO de Régimen Concertado.

*Artículo 11. Efectos de la calificación de Vivienda Tasada Municipal.*

De acuerdo con la Ley, las VTM así calificadas, con sus garajes y los trasteros a ella vinculados, tendrán la calificación permanente de viviendas protegidas. Consecuentemente, estarán sujetas de forma permanente tanto al precio máximo de transmisión establecido en esta Ordenanza, como al ejercicio de los derechos de tanteo y retracto a favor, en primer lugar del Ayuntamiento o la Administración actuante, y, en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

El precio máximo de cualquier segunda o posterior transmisión inter vivos de las VTM será el que correspondería en aplicación de los siguientes criterios:

VTMC: En función de cada una de las promociones.

VTME No podrá superar el establecido por la normativa autonómica de aplicación para las VPOT. En todo caso, no podrá superar el índice 1,7 respecto al precio máximo de las VPO. de Régimen Concertado vigente en el momento de la transmisión.

Cuando las viviendas se cedan en régimen de propiedad superficiaria, el precio máximo en segundas o posteriores transmisiones será el inicialmente abonado para su adquisición inicial, actualizado por aplicación de la variación del IPC y reducido en:

—Un 0,5 por 100 anual durante los 30 primeros años.

—Un 1 por 100 anual durante los 20 años siguientes.

—Un 2,6 por 100 anual durante los últimos años.

Ondasun higiezinean egin diren hobekuntzek eta mantentze lanek (halakorik egin bada), handitu egingo dute besterentze prezioa, baldin udal Administrazioak ondorio horietarako aurrez onartu baditu, haien balioztapena eta balio galera zehaztuta.

*12. artikulua. Lehentasunez erostea eta atzera eskuratzea.*

Udal etxebizitza tasatuen titularrek, edozein dela ere haien erregimena, Udalari edo administrazio jarduleari eta autonomia erkidegoko Administrazio orokorrari –lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideen titular subsidiarioa den aldetik– jakinarazi beharko die besterentzeko erabakia. Lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu ahal izan dadin, honako hauek ere adierazi beharko ditu: Aurreikusitako prezioa eta ordainketa modua, aurreikusitako eskualdatzearen gainerako oinarrizko baldintzak, eta jakinarazpenak jasotzeko helbidea. Eskubide hori gauzatu ahal izango da bi hilabeteko epean, jakinarazpena Udalaren edo administrazio jardulearen erregistroan eta autonomia erkidegoko Administrazio orokorraren erregistroan sartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean ez bada lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzeari buruzko berariazko ebazpenik jakinarazi, aurreikusitako besterentzea libreki gauzatu ahal izango da.

Artikulu honetan eskatutako jakinarazpena ez bada egin, legez nahitaezkoa den artikulu horretako edukiren bat ez bada adierazi, edo eskualdaketarengatik ordaindutako diru kopurua txikiagoa bada edo baldintzak kostubide gutxiagokoak badira dagokion administrazioari jakinarazitakoak baino, Administrazio horrek atzera eskuratzeko eskubidea gauzatu ahal izango du bi hilabeteko epean, besterentzearen ezagutza osoa izan eta hurrengo egunetik hasita.

*13. artikulua. Kontratuen oniritzia.*

Udal etxebizitza tasatuak lagatzeko kontratu guztiek, erabateko jabetzakoak, lurrazaleko jabetzakoak direnek zein alokairuan daudenek, udal administrazioaren oniritzia jaso beharko dute. Oniritzirik gabe, ezingo dira Jabetza Erregistroan sartu.

*14. artikulua. Erregistratzea.*

Udal etxebizitza tasatu gisa behin betiko kalifikazioan jasoko da etxebizitzen –eta etxebizitzei atxikitako garajeen eta trastelekuen– erregimena eta gehienezko prezioa. Udalak kalifikazio hori jakinaraziko dio dagokion Jabetza Erregistroari, eragindako ondasunetan jasota gera dadin eta erregistroaren publikotasuna era egokian egin dadin. Alde batetik, lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari (Udalaren edo administrazio jardulearen alde, edo subsidiarioki, autonomia erkidegoko Administrazio orokorraren alde) aplikatuko zaio erregistroaren publikotasuna. Bestetik, ordenantza honetan ezarritako eskualdatzeko gehienezko prezioari era iraunkorrean atxikita egoteko duten mugari aplikatuko zaie.

*15. artikulua. Udal etxebizitza tasatua esleitzeko prozedura.*

Udal etxebizitza tasatuak udal sustapenetan edo sustapen pribatuetan esleitzeko prozedura —Udalak azalera eskubidea lagatzetik etorriko dira esleipen horren eskubideak— zozketa bidezkoa izango da. Zozketa horretan parte hartu ahal izango dute Etxebiden izena emana dutenek eta ordenantza honetan zein deialdi bakoitzerako onartutako oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztenek. Deialdi bakoitzerako oinarriak, publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beti bermatuz. Nolanahi ere, zozketa deialdia jendaurrean jarri beharko da. Hori dela eta, zozketa eta haren oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko dira, eta zozketa bera udaleko idazkariaren aurrean edo ordezko gisa fede emaile publiko denaren aurrean. Prozedura honi berari jarraitu ahal izango zaio Udalarekin hala hitzartutako sustapenetan.

Las mejoras y trabajos de mantenimiento que en su caso hayan podido efectuarse en el inmueble incrementarán el precio de enajenación siempre que las mismas hubieren sido previamente aprobadas a estos efectos por la Administración municipal fijando su valoración y depreciación.

*Artículo 12. Tanteo y retracto.*

Los titulares de VTM, cualquiera que sea su régimen, deberán comunicar al Ayuntamiento o Administración actuante y a la Administración General de la Comunidad Autónoma, como titular subsidiario del derecho de tanteo y retracto, la decisión de proceder a su enajenación, con expresión del precio y la forma de pago proyectados y de las demás condiciones esenciales de la transmisión prevista, así como el domicilio a efecto de notificaciones, a fin de posibilitar el ejercicio del derecho de tanteo. Este derecho podrá ejercerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de la entrada de la comunicación en el registro del Ayuntamiento o Administración actuante y de la Administración General de la Comunidad Autónoma.

Transcurrido el plazo a que se refiere el párrafo anterior sin notificación de resolución expresa sobre el ejercicio del derecho de tanteo, se podrá proceder libremente a la enajenación proyectada.

Cuando no se hubiera efectuado la comunicación requerida en este artículo o se hubiera omitido en ella alguno de los contenidos legalmente preceptivos, así como cuando el precio satisfecho por la transmisión resultare inferior o las condiciones menos onerosas que lo comunicado a la Administración correspondiente, ésta podrá ejercitar el derecho de retracto dentro del plazo de dos meses siguientes al día en que haya tenido conocimiento completo de la enajenación.

*Artículo 13. Visado de contratos.*

Todos los contratos de cesión de VTM, tanto en propiedad plena como superficiaria, como los de alquiler habrán de ser visados por la Administración municipal y no tendrán acceso al Registro de la Propiedad sin dicho visado.

*Artículo 14. Inscripción Registral.*

La Calificación definitiva de las viviendas como VTM., en la que constará el régimen y el precio máximo de las viviendas y sus garajes y trasteros vinculados, se comunicará por el Ayuntamiento al Registro de la Propiedad correspondiente a los efectos de que se haga constar en los bienes afectados y se dé con ello publicidad registral en la forma que resulte procedente, tanto del derecho de tanteo y retracto a favor en primer lugar del Ayuntamiento o Administración actuante, y, en todo caso, subsidiariamente a favor de la Administración General de la Comunidad Autónoma, como de la limitación de estar sujetas de forma permanente al precio máximo de transmisión establecido en esta Ordenanza.

*Artículo 15. Procedimiento de adjudicación de la Vivienda Tasada Municipal.*

El procedimiento de adjudicación de las VTM en las promociones municipales o privadas cuyos derechos provengan de la cesión del derecho de superficie por el Ayuntamiento será el de sorteo entre los solicitantes incluidos en Etxebide y que cumplan con los requisitos exigidos en esta Ordenanza y en las correspondientes Bases aprobadas para cada convocatoria, garantizando siempre los principios de publicidad y transparencia, libre concurrencia y no discriminación. El sorteo, en todo caso, deberá ser objeto de convocatoria pública mediante publicación con sus Bases en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y realizarse ante el Secretario de la corporación municipal o personal que por delegación ostente el carácter de fedatario público. Este mismo procedimiento podrá seguirse en las promociones en las que así se haya establecido por convenio con el Ayuntamiento.

Gainerako sustapen pribatuetan ere zozketa bidezkoa izango da udal etxebizitza tasatuak esleitzeko prozedura. Zozketa horretan parte hartu ahal izango dute hurrengo artikuluan aipatutako udal erregistroan sartuta dauden eta ordenantza honetan zein deialdi bakoitzerako onartutako oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituztenek. Oinarriok garaiz jakinaraziko dira eta prozesu osoan zehar errespetatuko dituzte aurrerago aipatu diren publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak. Nolanahi ere, zozketa deialdia jendaurrean jarri beharko da. Hori dela eta, zozketa eta haren oinarriak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko dira, eta zozketa bera fede emaile publikoaren aurrean egin beharko da.

Udala ez beste sustatzaile publikoen kasuan, haiek ezarriko dute esleipen prozedura, betiere publizitate eta gardentasunaren, lehia askearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betez.

Udal etxebizitza tasatuak esleitzeko egingo diren zozketen oinarrietan, kupoak ezarri ahal izango dira. Horrek erraztu egingo du etxebizitza kopuru jakin bat etxebizitza eskuratzeko zailtasun edo beharrizan bereziak dituen gizarte talderen bateko pertsonei esleitzea.

Salbuespen gisa, sustapen bakoitzeko zozketatik etxebizitza kopuru bat bereiztea erabaki daiteke, Udalak beharrizan sozialei alokairu tutelatuen bidez edo prekarioan lagata erantzuna eman diezaien. Hori guztia bizilekua berriro hartzeko eskubideari kalterik egin gabe; horretarako etxebizitzak ez dira zozketatuko.

Udal etxebizitza tasatu baten onuradunaren bizikidetza unitateak familia ugariaren legezko muga gainditzen badu, haren etxebizitza trukatu ahal izango du (jabetzan, lurrazaleko jabetzan zein alokairuan izan), sustapen berri bakoitzean talde horrentzat gordetako etxeetan erregimen bera duen batez. Jabetzaren edo lurrazaleko jabetzaren kasuan, etxebizitza eskuratzen duenak udal etxebizitza tasatu berriaren eta utzitakoaren arteko prezio aldea ordaindu beharko du, ordenantza honen 11. artikuluan ezarritako zehaztapenen arabera eguneratuta. Familia ugarien kopurua handiagoa bada talde horrentzat gordetako etxebizitzena baino, etxebizitzak zozketatu egingo dira.

*16. artikulua. Udal etxebizitza tasatuaren eskatzaileen erregistroa.*

Oiartzungo Udalak eta Euskal Etxebizitza Zerbitzuak –Etxebidek– elkarlanean ariko dira Udal Etxebizitza Tasatuaren Eskatzaileen Erregistroaren sorkuntza eta mantenua burutzeko eta Udal Etxebizitza Tasatuen sustapenen inguruko informazioa, tramiteak eta prozesuak herritar guztiek gardentasun, gertutasun eta erraztasun osoz burutzeko helburuarekin.

Etxebideren bidez, Udalak erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuaren eskatzaileen erregistro iraunkorra mantenduko du. Aipatutako erregistroa egiteko eta mantentzeko prozedura Oiartzungo Etxegintzak babes ofizialeko etxebizitzak eskatzen dituztenentzat ezarritakoa izango da eta izaera orokorra izango du.

Etxebidek ofizioz, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistrora sartuko ditu erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaileetako zenbait. Eskatzaile horiek izango dira gizarte etxebizitzetarako (erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak) ezarritako gehieneko diru sarreren pareko diru sarrera egiaztatuak edo haiek baino handiagoak dituzten eskatzaileak. Horrelakoetan, erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen zozketan esleipendun gertatu eta uko egiten dutenak ez dira ezarritako zigor epean alde batera utziko erregimen hitzartuko babes ofizialeko etxebizitzen hurrengo zozketetan ezarritako zigor epean.

